

{ koaderno } Laura Mintegi

Donostiako Protokoloaren garrantzia

Kyotoko Protokoloa entzun eta, horretaz ezer irakurri gabe ere, edozeinek badakizki hiru gauza garrantzitsu dokumentu horren inguruan: nazioarteko akordioa da, ingurumenari buruzkoa da, eta gutxieneko neurri batzuk ezartzen ditu, herrialde guztiek bete ditzaten.

Gaur bertan Donostian sinatzen ari da hemendik aurrera Donostiako Protokoloa izena eramango duen nazioarteko hitzarmena. Eta zer da Donostiako Protokoloa? Nazioarteko akordioa da, hizkuntza eskubideen ingurukoa da, eta gutxieneko neurri batzuk ezartzen ditu, herrialde guztiek bete ditzaten.

Protokolo hau ez da hutsean sortu. Bi urte luzeko ibilbidea egin du Donostia 2016rekin batera. Gaurko aurkezpenak Europako Kultura Hiriburutzaren azken traka-rekin kointzidituko badu ere, Protokoloaren jatorria 1993an bilatu behar dugu, PEN Internationaleko Translation & Linguistic Rights Committee-ren bilera batean idazle haiek erabaki zutenean Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala idaztea. Hiru urte geroago, 1996an, 61 gobernu kanpoko erakundek, 41 PEN taldek eta 40 adituk onartu zuten Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala. Deklarazio Unibertsala izan zen eskubideen aldarrikapena, eta Protokoloa da, orain, eskubideok bermatzeko sortu den tramankulu garrantzitsua, eskubideak paper erreabaitira gauzatu ezin badira.

Deklarazioa bezala, Protokoloa ere behetik sortu da, gizarte zibila ordezkatzaren duten hainbat taldek adostu dute, eta, gaurko aurkezpenaren ostean, asmoa da talde gehiagok bereganatzea, babestea, erabiltzea, gauzatzea, aplikatzea, defendatzea, bultzatzea eta bere egitea.

Honenbestez, Protokoloaren lehen ezaugarri garrantzitsua da gizarte zibilak sustatu duela zenbait erakunderen laguntzaz; PEN International, ELEN (European Language Equality Network), LinguaPax, UNPO (Unrepresented Nations and Peoples Organization), ECMI (European Centre for Minority Issues) eta CIEMEN (Centre International Escarré per a les Minorities Ètniques et les Nations) elkarteek eraman duten gidaritza.

Abiapuntua anitza bada ere, hainbat kontzepturen inguruan ideia bera konpartitzen dute: hizkuntza aniztasuna ez da madarikazioa, aberastasuna baizik; hizkuntzen arteko elkarbizitza bilatzen dute, berdintasuna bermatzea dute helburu, hizkuntza gutxituak garatu nahi dituzte, tresnak eman, eta, finean, hizkuntza komunitatea subjektu bihurtu nahi dute, gizarte justuago baten bermatzaile.

Eta hori guztia nola egiten da? Hainbat herrialdetik jasotako proposamenak bildu dituzte aurrenik, eta sakon eztabaidatu dituzte ondoren. Eztabaidaren eta elkarrekintzaren emaitza da gaur aurkezten ari den Protokoloa. Hizkuntza gutxituen osasuna bermatzeko gutxieneko neurriak ezarri dituzte, zer den ezinbesteko, zer den oinarrizko, zer den komenigarri. Orain, hemendik aurrera, hizkuntza komunitate bakoitzak ikusi beharko du zein lekutan dagoen, nolakoa den bere egoera, zein bere indargunea eta zein bere ahulezia, eta

Protokoloa behetik sortu da, gizarte zibila ordezkatzaren duten hainbat taldek adostu dute eta asmoa da talde gehiagok bereganatzea, babestea, erabiltzea, aplikatzea, sustatzea, defendatzea

dagoen lekutik abiatuta saiatuko da hobetzen eremu guztietan hizkuntzaren egoera.

Hizkuntza batzuek bide erdia egingo dute. Beste batzuk, ordea, apenas ez dira abiatu hastapeneko puntutik. Garrantzitsuena, baina, zera da, hizkuntza guztiek tresna bera dutela beren eskubideak defendatzeko, tresna bera egoera neurtzeko, eta tresna bera helburuak finkatzeko, nork bere erara egin arren.

Gaur sinatzen ari den Protokoloa tresna da, erreminta, lanabesa. Tresna bat, edozein tresna, erabilgarria da, probetxugarria. Baina objektu huts bihurtu daitezke atzetik ez baditu gogoia, borondatea, egiteko asmoa, bultzada. Hori da gainontzeko dagokiguna, tresna honetaz baliatzea. •

ONDAREA SOINEAN

Egun «baserritar jantzi» gisa ulertzen dena leial al zaio jatorrizkoari?

 **KULTURA /** Oihane Larretxea de la Granja

San Tomas egunez gure herrietako plazak «baserritar jantziekin» beteko dira aurki. Egun horiak, berdeak, arrosak... dira, hamaika aukera daude, baina nolakoak ziren jatorrian? Zein izan da jantzion garapena? 36ko gerrak desagerrarazi zituen eta ondoren eredu bat inposatu zen bat lurralde bakoitzeko, urdin ilun edo beltz motaduna tartean.

Badira etxeetako armairuetan goialdeko apalategietan pilatzen diren kutxak. Bertan oso noizean behin behar ditugun gauzak eta objektuak gorde ohi ditugu. Adibidez, bertan gordetzen dira inauterietarako mozorroak, Gabonetako zuhaitz eta apaingarriak edota

danborradako jantzia eta barri-la. Justu alboan, beren lekutxoak dute San Tomas egunean nahiz euskal jaietan erabiltzen ditugun jantziek. Gona, mantala, txapela, abarkak eta zapia, besteak beste. Iristear da txistorra eta talo mokaduekin disfrutatzeko eguna, eta, beraz, asko igoiko dira aulki batera goialdeko apalategitik dagokion kutxa ate-

Ezkerrean, Zarauzko euskal jaiak. Jantziaren irakurketa propioa egin duten bi emakume, alai dantzan. Alboan, nekazari familia bat, etxeko atarian.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS
BILBOKO EUSKAL MUSEOA

ratzeko. Garaiz atera, beharrezkoa bada gonaren barrenak luzatu eta plantxatzeko, txukun-txukun prest uzteko. Liturgia hutsa, urtero-urtero betetzen dena.

Azken urteetan horrelako ospakizunetan “baserritarrez” jantzeko joera asko areagotu da, baita jantziok egiteko sormen lana ere. Hala, jantzi ilun motadunetik kolore alaietara igaro gara: horia, berdea, gorria... Aukerak hamaika dira egun, bakoitzak bere estilora eraman du betiko jantzia, bakoitzak bere egin du, bere izaera edo gustuak hobekien adieraziko dituzten arropak aukeratuz. Modernoa da aipatutako joera, horretan zalantzarik ez dago. Baina non du oinarria? Zein zen hasiera batean “baserritar jantziaren” erabilera? Bada, patxadaz azal dezagun, nork erabiltzen zuen eta noiz, den-denak baitu bere zergatia.



Janzki herrikoia ez zen bakarra, ezta iraunkorra ere, eta geografiak nahiz ezaugarri sozial edo profesionalek eragina zuten diseinuan, Bilboko Euskal Museoa jasotzen duenez. Eta iraganean ere, gaur egun bezalaxe, hirietako moden eraginei lotuta zegoen; mantso heltzen ziren landaguneetara eraginok, baina heltzen ziren, ondoren bakoi-tzak jantziak bere erara pertsonalizatzeko. «20ko hamarkada arte moda alde batetik zihuan, eta, janzkera herrikoia, bestetik. Janzkera herrikoia oso poliki eboluzionatzen zuen, tarteka erosten zuten modan zegoen soinekoa, bai, baina garapena geldoa zen, etxean egindako arropak erabiltzen zituzten, lihoarekin egindakoak», dio Ane Albisu Ikerfolk taldeko kideak.

Lihoaren landaketak jantzien ekoizpena sustatu zuen, eta burutik oinetarainoko janzkiak egiten ziren ehunok: atorrak, zapiak, mantalak, alkandorak, galtzak eta gerrikoak. Kostaldetan, berriz, argizariz igurtzitako lihozko mihiseekin egindako uretako janzkiak zituzten, bertako klimari egoki aurre egiteko. Artileari esker jakak eta galtzerdiak egiten ziren besteak beste, eta larruzko abarkak baserriko ardien larruarekin egiten ziren. Gogortu ez zitezen, eta baldintza onetan mantentzeko, belar artean gordetzen ziren, hezetasuna mantentzeko.

Euskal Herriaren aberastasuna ondo islatzen da jantzi-tan ere, aniztasuna erabatekoa baitzen, bereziki beste lurraldeekin muga egiten zuten lekuetan; adibidez, Bizkaiko mendebalde, Lapurdi eta Zuberoa iparralde. Bilboko museo etnografikoaren arabera, Nafarroako Pirinioetako ibarretan erabiltzen ziren janzki zeremonial «aberats eta doto-reek» berezko nortasuna zuten, hainbeste, «Euskal Herriko gainontzeko tokietan parekikorik ez zutela».

Jantziak zerbait zurrun edo itxia ez izate horretan eragina zuten, neurri berean, jaiek, ekitaldi sozialek, zeremonia zibil nahiz erlijiozkoek. Ezberdinak ziren, gaur egun gerta-



Garaiko belaunaldi berriek ere zapiari zaharrek ematen ez zioten erabilera eman zioten. Alboan, gizonezko baserriar jantziaren aldaera bat, egun hedatuena. Behean, ume talde bat, koloredun jantziekin. Jon URBE-Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS
BILBOKO EUSKAL MUSEOA





tzen den bezalaxe, egunerokoan erabiltzen ziren arropak edo egun berezietan jantzen zirenak. Horretan berdintsuak gara aurreko gizaldietako euskaldunak eta egungoak.

LURRALDEKAKO JANTZI ARTIFIZIALAK

Gaur egun berezko janzki tradizionaltzat jotzen denak XVIII. mendean du jatorria, lehen az-tarnak zaharragoak diren arren. Funtsean aldatu gabe mantendu da, XIX. mendeko modaren eraginak eragin. Industrializazioak ekarri zituen aldaketa gehiago: denbora luzez mantendutako formak galdu, modernizatu eta prezio egokian erosteko aukera ireki zen. Zoritxarrez, 36ko gerrak, beste gauza asko bezala, desagerrarazi egin zituen jantziak, eta egun garaiko arropa batzuk baino ez dira gelditzen.

Hiru urteko gerra amaitzean, Falangearen Emakumezko Sekzioari eman zitzaion jantziak berreskuratzeko ardura; dantza taldeak sortu zituzten, «janzki erregionalak» deitutakoak sortuz. Hanka-sartzeak bata bestea- ren atzetik egin zituzten berreskuratzeko saiakera horretan, izan ere, jatorria eta jantzi originalak errespetatu eta aintzat hartu gabe, alderdi estetiko batzuk asmatu eta estereotipoak sortu zituzten. Lurralde banaketa ere artifizialki egin zen, probintzien arabera: Gipuzkoaren kasuan, puntudun jantzi urdina; Nafarroan, Erronkari bailarakoa; eta, Bizkaian nahiz Araban, «irule» izeneko jantzia ofizial egin zen, marra belzdun gonazpiko gorriarekin. Pololo zuriak, alegia, barruko arropa zena, jantzi herrikoia- ren eta hiri girokoaren arteko nahasketaren «biktima» izan ziren. Ezinezkoa zen garai batean inongo emakumek horrelakorik eramatea! «Banaketok mimetikoki errepikatu ziren, eta, kasu askotan, benetako bezala hartu zituzten», dio Bilboko Euskal Museoa.

Ondarea berreskuratzeko benetako ahalegina, historia eta tradizioari leial izanik, 70eko hamarkadan heldu zen, dantza talde asko eta Donostiako Argia taldearen eskutik, Juan Antonio Urbeltz buru zela.



Ikerketa lan horietara batu zen Albisu bera ere 70eko hamarkadaren amaieran, eta gerotik horretan ari da, besteak beste. «Gure benetako jantziak» gizaldiaren hasieran galdu zirela dio, «etorri zelako mugimendu bat ez zituena tradizioak eusten: dantza eta jantziak mundu idealizatu batetik hartu zituen. Norbaitek pentsa lezake eboluzio bat direla, baina ez da hala. Eboluzioa zurea ezagutzen duzunean ematen da». Eransten duenez, ezjakintasun handia egon da batetik, eta, bestetik, zokoratu egin da denbora luzez «geurea» zen guztia.

Argia taldea ohartu zen herri honen beste jakintza askorekin gertatu ez zen bezala, jantzien munduan ez zela inolako transmisiorik egon. Horregatik, alde pedagogikoan indar berezia egin zuen.

«Benetan nola janzten ziren ahaztu eta beste bertsio bat egin genuen, baino arau batzuk errespetatu gabe, fidelak izan gabe; hori ez dugu hartu behar gauza txar bezala. Une haietan nekazaritzaren lotutako mundua ideala zen, bukolikoa. Hiri-

tarrek beren ikuspegitik jorratzen zituzten gauzak; horregatik, baserrien gainean ditugun koadro batzuk oso-oso fidelak dira, eta, beste batzuk, berriz, ez». Kontatzen duenez, euskal jaietan norgehiagokak egiten zituzten baserritarrez hobeto nor janzten zen neurtzeko. «Baserritarrak hortxe zeuden, haiengana jotzen zuten, baina, aldiz, zergatik janzten zituzten abarkak baserritarrek inoiz janzten ez zituzten moduan?».

Gauzak orduan ere ez ziren gaur egungoetatik hain ezberdinak. «Geuk gaur egiten dugun moduan, fenomeno bat hasi zen moda sartu zelako tartean; hori egitea moda bat zen, eta hala jarraitu dugu. Gaur egun egiten duguna ez da erreprodukzioa. Horia, berdea... erabiltzea, hori sormena da, baina ez da fidela».

Hala, gaur egun plazetan ikusten diren jantzi koloretsuak ez dira inondik inora inoiz existitu, eta interpretazio garaikidea baino ez dira. Albisuk, baina, ez du joera hori kritikatzeko, «minigona baserritarrek» ateratzen direnak kritikatzeko ez dituen bezala. «Ikertzailea naiz,

eta, beraz, ezin dut kritikatu, ikusitakoarekin harritu eta hausnartu besterik ezin dezaket egin». Penatzen duena, hori bai, ezjakintasunez egitea da. «Baina noiz irakatsi digute gure ondarearen alderdi hau?», dio.

EZKUTU-AGERIKO ALDARRIKAPENAK

Buruko zapiak ere izan du bere protagonismoa eta papera. 30eko hamarkadan, adibidez, denak berdin-berdin janzten ziren, uniforme gisa. Emakumeek ez zituzten zapiak baserriko emakumeek bezala janzten, eta ilea erakusten hasi ziren. «Beren ilea erakutsi nahi zuten, ez zire-

Edertasuna ilearen luzeraren arabera neurtzen zen. Neska gazteek edo ezkongabeek txirikorda batean edo bitan eraman ohi zuten jasoa. BILBOKO EUSKAL MUSEOA

60ko hamarkadan baserritar jantziaren azpian beti gona gorria eraman ohi zen. Ikurrinaren debekua tarteko, azpikogona zuriari zinta gorriak eta berdeak txertatu zitzaizkion

Egun ezagutzen dugun jantzi urdin tantoduna hiritarrena da. Baserritar denak berdin janzten zirela pentsatzea, gaur egun den-denok berdin janzten garela pentsatzearen parekoa da

lako baserriko emakumeen irudi harekin identifikatzen. Zapia arrotza zitzaien, eta nola edo hala beren benetako jantzeko modua erakutsi nahi zuten». Frankismoan, berriz, aldarrikapen kutsua hartu zuen, azpikogonak bezala. Hasteko, azpikogona jatorrian ez zen sekula erakutsi, eta ondoren jarritako zinta berde eta gorriak mezu bat helarazteko baliagarriak ziren: Euskal Herria, ikurrina. Hori mantendu egin dugu.

80ko hamarkadan, folklorismo eskuindarrarekin lotu zuten batzuek jantzia, eta egon zen gaingitu beharreko kontua zela uste zuen korrante bat ere. «Nola hasiko gara ba baserritarrak bezala janzten? Goazen eboluzionatzera!». Horrelako usteak zituen jendea egon bazegoen, eta neurri batean gaur egun horren hondartxo bat ere gelditzen dela uste du.

Dugunaz harro egotea, jakin eta ezagutzea, eta irakurketa garaikideak egin edo tradizioari fidel izan, burutik janzten hastea gomendatzen du Albisuk. «Txapela buruan eta ibili munduan» ez ei da esateagatik esaten...



Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

AKASO INOIZ IKUSI DUTEN ASTORIK POLITENA

Zer pentsatuko ote du asto horrek? Bere ukuilu lasaitik atera dute, inoiz baino garbiago jarri eta azokara eramane. Hesi batean sartu eta, hantxe, egun-pasa, jendea paretik pasa eta era guztietako gailuekin argazkiak ateratzen dizkion bitartean.

Zer pentsatuko ote du asto horrek? Akaso pentsatuko du inoiz ikusi duten astorik politena dela. Baina agian beren bizitzan ikusi duten lehen astoa izango da, politena eta itsusiena, biak batera. Garai batean azoketan tratuan aritzen ziren baserritarrak, ganaduarekin tratuan. Gaur egun horretatik gutxiengo du feriak, baina balio du horretarako, inoiz astorik ikusi ez duenaren parean asto bat jartzeko. Hain urruna geratzen ari den mundua eta bizimodua pixka bat hurbiltzeko. amagoia.mujika@gaur8.info



EXPRAI

iRRITZIA:

...ETA TTAK!

HARRAPATU ZAITUT,
OLENTZERO!

AURTEN
EZIN IZANGO DUZU
ESAN NIRE ESKAERA
IRAKURRI
EZ DUZUNIK



EXPRAI
216

Gure dorreak

Antton Izagirre

Ezagunak dira Pisako dorrearen okerduraren pixkanakako handitzeak bere garaian italiar agintariengan sortu zituen buruhauste eta larridurak. Grabitatearen indarrak lurra joaraziko zion usteak asaldura handia eragin zuen. Hemen, gure artean, PISA txostenak EAEko agintari eta eskola eragileengan sortu duenaren neurri bertsukoa; aurreko hamarkadan sendoa omen zirudien hezkuntza sistemaren dorreari dar-dar eginarazteraino.

Ez da harritzekoa, erantzukizunaren zama leporatzeko orduan, hezkuntza sistema eta horren arduradunak begiz jo izana. Inor gutxi jarri du zalantzan proba bera. Aurreko urteetako kalifikazio hobeak “onak” egin zituen sistema eta arduradunak. Aurrekoetan balioetsitako informea, nola orain zalantzan jarri? Ez lukete legitimitaterik izango.

Denok, erantzukizunak eta sistemaren hobekuntzak eskatzeko eskubidea baztertu gabe, galdera bati erantzun beharko genioke: PISA ote da gure hezkuntza sistema balioesteko ebaluazio irizpideak egokien jasotzen dituen proba? Txosten horrek geurean jasotzen dituen emaitza txar edo onen, poz eta tristuren, gorabeheren kariatara erabakiak hartzera mugatu behar ote dugu?

Azkenaldian, ikasleak ebaluatzeko parametro aldaketaren beharra aholkulari eta profesional ugariaren ahotan dabil. Kalifikazioa eta ebaluazioa ez dela gauza bera azpimarratu dute. Esan eta esan ari zaizkigu irakaskuntza-ikasketa prozesuaren ebaluazioa dela garrantzitsuena, ez kalifikazioa. Ebaluazioaren helburua hobekuntzak eta zuzenketa neurriak ezartzea beharko litzatekeela, ez ikasle eta eskolen arteko mailakatzea.

Ba, hara nola, PISAko emaitzen helburua mailakatzea dela jakinda ere, haren doinura denok dantzan jarri gaitu. Nota txarrak guztiok asaldatzen gaitu nonbait eta onak jaso dituen loriatu. PISA ote da parametro berrien arabera ontzat ematen dugun neurgailua? Aitortuko al genioke LOMCeri gure hezkuntza sistema ebaluatzeko zilegitasuna? PISari bai? Nahikoa al da sona handiko informeen izate hutsa ontzat emateko?

Berezko Hezkuntza Sistema aldarrikatu eta PISA informeari ebaluatzeko gaitasuna onartzea ez da koherentea. Ebaluazio sistemak berezko adierazleak jaso behar ditu eta adostasun zabala bildu hezkuntza eragileen artean. Gainerakoan “PISA dorreak” azpian hartuko gaitu eta beldur naiz bakar batzuek gure hezkuntza sistemaren dorre nagusia dena, euskara, ez ote duten bota nahiko. •

Hara eta hona «pertenentziekin»

Miren Azkarate

Beste behin ere nire burua etxe aldaketa edo denok deitzen diogun moduan mudantza baten aurrean ikusi dut azken hilabeteen. Sentsazioa dut, gainera, eta uste dut sentsazio oso fundamentatua dela, 20 urte inguru nituenetik ez dudala bi urte baino gehiago iraun etxe berdinean! Eta “etxe” esaten dudanean bizileku esaten dut, eta horrek espetxea ere onartzen du. Ba hori, azken bizileku horietan ere ez nuela bi urte baino gehiago jarraian egin.

Aldaketak onerako izaten direla diote batzuek, eta, tira, batzuetan hala izaten dira eta espero dezagun hau ere halaxe izatea. Baina niri aldaketek intseguritate eta antsietate handia ematen didate eta urduri bizitzen ditudan momentuak dira. Ez dakit,

berria edo arrotza zaidan guztiak beldurra emango balit bezala da. Egun hauek horrelakoak izan dira, ez da salbuespena izan, urduriak, antsietate handikoak, beldurrekin...

Hala ere, kartzelakoekin alderatuta, kaleko mudantzok ez dute zerikusirik. Horiek bai zirela beldurgarriak eta urduri jartzekoak! Kar-kar-kar... Orain barre egiten dut, baina, «*tiene 20 minutos para recoger sus pertenencias, se va de conducción*» entzuten zenuenetik, hortxe gorputz dardarak. Dena azkar, dena presaka, dena ondo eta azkar pentsatu beharra, zer hartu, zer utzi, kideekin agurtzeko denbora juxtua eta batzuetan existitzen ez zena... Zeren 20 minutu, 20 minutu ziren, ez gehiago ez gutxiago. Ah! Eta zure “*pertenencias*” denak poltsa edo petate bakarrean sartuta!

Bidaia Guardia Zibilarekin, horrek uste dut edonor jarriko lukeela urduri. Batzuetan orduak autobus estu horretan. Kasu batzuetan ez dakizu nora eramaten zaituzten ere! Eta batzuetan egunak irauten dituzten “mudantzak” izaten dira.

Iristen zarenean bizileku berrira, garbitu dena eta jarri berriro ere duzun gutxia eta egin zaitez leku berrira. Pasa dituzun urduritasun eta antsietate guztien ondoren, aurrera!

Horrelakoak bizi ondoren gezurra dirudi orain, badakidala nora mugitzen naizen, inongo presarik gabe eta nik aukeratutako lekuetara, horrela bizitzea mudantzak! Edo agian juxtuki horregatik bizi ditut horrela...

Badaezpada, espero dezagun denbora luzean ez izatea beste etxe aldaketarik! •



Belen Nevado. Manu ARAKAMA

infraganti BELEN NEVADO

Gaztetan ia ezinezkotzat zuen bere sekretupeko nahia gauzatzea; halaber, uste zuen ezin zela feminista izan, prestakuntza falta tarteko. Zer diren gauzak, ordea, aktore gasteiztarrak hogeitaka urte eman ditu antzerki feminista egiten, antzezte eskolak ematen eta emakumeen gaineko tabuak nabarmen uzten.

Antzezlekuetara itzultzeko gogo ikaragarria duela dio Belen Nevado aktore gasteiztarrak. Emanaldi batean, kable bat zapaldu eta belauneko lotailua hautsi zuen, *spagat* delakoa eginez. Hori bai, *spagat*-a oso ondo

egin omen zuen. Hala ere, “Ovarios verdes fritos” bere azken obra antzezten jarraitu zuen hurrengo hilabeteetan, arrakasta itzela lortuta, bai publiko aldetik bai kritika aldetik. Madrilerare eraman zuen obra, eta han zela belauna huts egiten hasi zitzaiola nabarituta, ebakuntza egitea erabaki zuen azkenean.

Antzezlekura itzultzeko gogoa du, baina ez geldirik egotekoa. Film labur baterako gidoi bat idatzi berri du, Ruben Sanchezek eta beste zinemazale amorratu batzuek proposatuta, sexua gai eta behin-behinean “Sua bai” titulua duena. Belenek dioenez, ordea, «sexua baino zientzia-fikzioa da!».

Ez da zinemarako idatzi duen lehen gidoi. Zenbait film laburretan lan egin izan du, eta halako batean emakumezko zinema zuzendari eta gidoilari gutxi daudela pentsatu zuen, eta emakumezko aktoreen paperak oso estereotipatuta daudela, kanon edo patroi batek oso mugatuta; hartara, gidoiak idaztea erabaki zuen.

GAUR8rekin bildu baino lehen errehabilitazio saioa egin du, eta ondoren «erloju kontra» idatzi eta zuzentzen ari den umeentzako ikuskizunerako entseguan izan da. Eneko Etxebarrieta eta Bingen Mendizabalekin batera abiatu duen proiektu horrek “Musikaberintoa” du izenburu, eta antzerkia eta musika uztartzen ditu.

Antzerki feminista egiten du, argi eta garbi, «erabat feminista». Dioenez, ezin du ikusmolde feminista saihestu. 20 urte zituela, antzerkian hasi zenean, uste zuen ezin zela feminista izan, ikasketarik ez zuelako. Baina, jakin gabe ere, oraingo ikusmolde feminista bera zuen. Antzerki Eskolan hasi eta Hala Bedi eta gaztetxeko giroan sartu zenean, gauzak «mendekuz» egiten omen zituen, eta emakume askok, feminista askok, esaten zioten bere lanak «oso feministak» zirela. «Egia esan, nik ez nuen zerbait feminista egin nahi nuela pentsatzen, baina barrenak eskatzen zidan hori egitea». Ondoren, alderdi teorikoa gehixeago lantzen hasi zen. Erraietatik sortzen zitzaiona oztopatu gabe, ordea, adierazpen askatasunari inola ere uko egin gabe. Horrela sortu ziren, besteak beste, “Las punkis también lloran” edo, berrikiago, “Ovarios verdes fritos”, emakumeen sexualitatearen aurkako erasoaren aurka, emakumeen sexualitateari buruzko tabuen aurka, ho-

riek sortu dituen eredu heteropatriarkalaren aurka.

Betidanik egin nahi omen zuen antzerkia, baina hasiera batean sekretupeko nahia zela dio, «ia ezinezkoa» zuela uste baitzuen. Eta egun batean Gasteizko Antzerki Eskolara sartu eta izena eman zuen. Horrek bizitza aldatu zion. Lau urteko ikasketak bukatu baino lehen, Elena Armengod zenaren eskutik Bekereke taldearekin lanean hasi zen. Orduan konfiantza handia hartu zuen bururatzen zitzaiona gauzatzeko. «Eskola handia izan zen Elenarekin lan egitea», dio esker onez. Eta antzerkia, afizio ez ezik, ofizio ere bihurtu zitzaion.

1994an, egungo Bosnia eta Herzegovinan esperientzia ahanzezina bizi izan zuen Sebastopoleko titiriteroekin, Mugarik Gabeko Pailazoak gobernuz kanpoko erakundearen eskutik herrialdea bisitatu baitzuen bertan gerra bizi-bizi zela: «Esperientzia ederra izan zen, han izan ginenok betiko lagun bihurtu ginen. Baina mingarria, basatia, ikaragarria izan zen».

Nabarmena da umorea Belen Nevadoren antzeppen guztietan. «Ezinbestekoa dut, nire lanabes nagusia da, mezua helaraztea errazten du», dio. Berezik gus-tuko du mezu hori gizonengana iristea, «ondo goazen seinale». Emakumezko publikoak oso ondo erantzun ohi du ikuskizunetan, askotan emakume kolektiboek antolatutakoak izaten baitira; horregatik, gizonak ere hurbildu eta obra gustura ikusi dutela jakitean, egiten dutena baliagarria dela pentsatzen du.

Bizitza aldatu ez ezik, agenda bete ere egin zion antzerkiak. Bekerekeko etaparen ondoren, Pikor eta La Tirili taldeekin lan egin zuen, besteak beste hain gustukoa duen kale antzerkia eginez. Gaur egun, ordea, belau-nak «zartatuta dituela», barneko guneak nahiago ditu.

1997an antzerkia beste jardue-ra kutun batekin lotu zuen, punk-rockarekin, hain zuzen, La Seta Pasote taldean, Marta Aldama, La Tirili antzerki taldeko Catherin Marchand *Plum* eta Vulpes musika talde ospetsuko Mamen



Behin belauneko ebakuntza eginda, antzezlekuetara itzultzeko gogoz da Belen Nevado. Manu ARAKAMA

Rodrigorekin batera. «Ordain gisa», Carrocerías Betoño taldean ere abestu zuen zenbait urtez, bera taldeko emakume bakarra zela. Beste kideak ere sobera ezagunak ziren: RIPeo Jul eta Txerra Bolinaga anaiak, Santi Salvate Si Puedes taldeko kide ohia, Egun Off-eko Iñaki Garcia eta Iker Zubia, Belenek bezala ahotsa jartzen zuena.

Belenen hurrengo «mende-kua» Detritus Teatrus taldea sortzea izan zen, 1999an, La Tirili eta Pikor taldeetako zenbait lagunekin. Beraiek sortutako obrak antzezten zituzten, hala nola «Detritus corazón», «Rom-pamos el hielo» edo arestian aipatutako «Orgasmos verdes fritos», aurtengo uztailea arte Javi Hueteren laguntza teknikoarekin ikusgai izan dena.

Antzezte irakasle gisa ere jardun izan du, eta dihardu, baina ez du lan finkoa izaterik nahi, gustura egiten duela aitortzen badu ere. Eskuarki bakarrik lan

egiten du, eta, ikastaro edo tailerren bat ematen duenean, elkarregeriako eta ideiak partekatze aukera du. Bekereken zegoenean hasi zen institutuetan antzerki eskolak ematen, eta inoiz ez du antzerki irakaskuntza utzi. Azken urteetan, besteak beste, Arrasateko Jabetze Eskolan, Emakume Txokoan, antzezte eskolak ematen ditu. Gasteizen ere antzeko tailerrak eman zituen Udaleko Berdintasun Zerbitzuak, emakumeen jabetze programaren barruan. Tailer horiek «Zapalduaren antzerkia» izenburua dute, edo, Belenek dioenez, «Askapen antzerkia». Bizitzarako entsegu gisa ulertzen ditu

«Egia esan, nik ez nuen zerbait feminista egin nahi nuela pentsatzen, baina barrenak eskatzen zidan hori egitea». Ondoren, alderdi teorikoa gehixeago lantzen hasi zen

«Askapen antzerkia» jorratzen duten tailerrak bizitzarako entsegu gisa ulertzen ditu; gatazkak konpontzeko tresna baliagarria direla uste du, bestearen lekuan jartzeko gune aproposa

tailerrok, eta gatazkak konpontzeko baliagarri direla uste du. Pertsonaletik sozialera doan jarduna, hitz egin eta antzezteko gunea da, egokia bestearen lekuan jartzeko, bestelako ikuspuntuak ezagutzeko, nork bere

burua kanpotik ikusteko.

Belen Nevadok, lanean bezala, arlo pertsonalean ere erakusten du kezka sozial eta politikoa. Immi-granteen edo presoan aldeko jardunetan aritu ohi da. Sare plataformaren

aurkezpenerako antzezpenez bat ere prestatu zuen. «Nire ekarpena da, neure esparrutik ahal dudana guztia egiten dut, eta oso gustura, jakina».

Oholtzara igo ezinean baina geldirik ez, eta burua beti borbor. Dagoeneko hitzartua du 2016ko urrian Tolosan «zerbait» estreinatzea, beharbada menopausiaren gaineko obra bat, horren inguruko tabua ere nabarmena omen da-eta; «ematen du nolabait emakume batek menopausia duenean ez duela ezertarako balio», dio. Bada, gaiaz ikeritzen ari da, hurrengo obra idazteko. Zergatik Tolosan? Urtero-urtero urriko hitzordu saihetsezina duelako.


Eta, beste alde batetik, zerbait pertsonalagoa idatzi nahi du, halako fusioa egin, antzerki klasikoa, punk-rocka, Extremadurako sustraiak, Euskal Herrian bizitzea... nahastuta.

Denbora aurrera doa eta Carlos Gilen hitzetan «miretsita uzten gaituen adorea duen antzezele» honekiko solasak luze jo du, baina guri labur gertatu zaigu. •

Xabier Izaga Gonzalez

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



EUSKAL MUSEOA, BAIONA

URDATXEKO HERRITARRAK, ZUTIK ELIZAREN AURREALDEAN

Urdatx edo Santa Grazi Piri-
nioetan dago, Zuberoan, hain
zuzen. Argazkiko eliza erro-
manikoa 630 metroko garaie-
ran dago eta 1085ean eraiki
zuten, Leireko monasterioa-
ren aginduz. Haren ondoan
erromesentzako ospitale bat
ere eraiki zuten. Urdatx Done-
jakue bidean dago, eta udale-
rri berean daude Kakueta eta
Ehüjarreko arroila ezagunak.
Bidexketan gaindi Iratiraino
iristen da, Nafarroaraino. XIX.
mendearen hondarrean, Ur-
datx argazkilari ibiltarien iko-
no bilakatu zen. Eliza horri ar-
gazkiak egin zizkiotenen
artean, nabarmentzekoa da
Mieusement. Egile ezezagu-
neko irudi hau 1900ean egi-
na da. Elizaren aurrealdeko hi-
lerrian, herritarrak daude
bilduta, guzti-guztiak zutik.